

5. NORENA DA NATURA?

(14-17 ARGAZKIAK)

Nor ote da gizon armatu hori? Zergatik dago hor? Zein izango da bere lana? Kongoko polizia bat da, meatzetik ateratako koltan zakuen kargamentua zaintzen ari dena. Zergatik izango da polizia horren presentzia beharrezkoa?

Nork eskuratzen ditu meategietako materialak? Nork kontrolatu eta bereganatzen ditu bertatik ateratako etekinak? Nork jasaten ditu material horien eskuraketa eta prozesamenduak eragiten dituen ondorioak?

Zein etekin jasoko dute langileek egiten duten lanagatik?

Eta baliabide naturalen eskuraketaz ari garela, geure buruei galdetu beharreko galdera beharrezkoa: norena da natura?

Kongoko Gatazka Bigarren Mundu Gudatik egon den gatazkarik hilkorrena da. Bost milioi lagun baino gehiago hil dira 1998tik; 2013an, milioi bat lagun lekualdatu dira; eta, urtean, ehun mila emakume baino gehiago bortxatzen dituzte. Gudaren jatorria ez da koltana, baina kapitalismo globala egoeraz baliatu da eta, koltanaren negozioak herriari aberastasuna ekarri beharrean, meatzak kontrolatzen dituzten talde armatuak finantziatzeko erabili da askotan, biolentziaren zikloa elikatuz.

Sexu indarkeria arma gisa erabilia izan da, herrialde bateko emakumeak bortxatzean komunitate hori indargabetzen baita, emakumeek bermatzen duten kohesio soziala apurtzearekin batera. Umeen esplotazioa ere



5. NORENA DA NATURA?

(14-17 ARGAZKIAK)

da nagusi, adingabe asko lan fortzatua egitera behartzen dute meategietan, eta neska asko prostituitzen dituzte. Bestalde, ez da ahaztu behar meategietan lan egiten duten asko gatazkaren ondorioz lekualdatutako pertsonak direla, eta askotan meategiak dituzte diru iturri bakarra.



ALBOANek baliabide naturalen gobernantza edo kudeaketa arduratsua defendatzen du: komunitateek berek eta lurraldeetan bizi diren pertsonak erabaki behar dute zer garapen erdua nahi duten euren lurraldeetan, leku bakoitzean komunitate horien estrategien arabera. KEDen, adibidez, meatzaritzaren bidetik garapen eta ongizatea bilatzen duten elkarte eta komunitateekin indarrak batuz.

Hau guztia eta gero, begiratu berriro 17. Argazkia. Saiatu zaitez pertsona honen egun bat imaginatzea. Noiz esnatuko dela uste duzu? Non egingo du lo? Zein adin du? Familiarik izango al du?

- **Bideoa:** “Las Minas del Rey Leopoldo” (gazteleraz) (zatia) (Iturria: Cristianisme i Justicia) [Ikusi.](#)
Bideoa osorik ikusteko: [Ikusi.](#)



ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa

-en proiektu bat



TECNOLOGÍA
LIBRE DE
CONFLICTO

www.tecnologia libredeconflicto.org

Lortzeagatik

Laguntzailea:



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN